



I. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Bizkaiko Foru Aldundia

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Saila

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuaren 616/2024 FORU AGINDUA urriaren 18koa, zeinaren bidez bidaiariak eta salgaiak errepidez garraiatzeko diren zenbait ibilgailuren gidarien hasierako kualifikazioa egiaztatzen duen lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko proben deialdia egiten den.

Apirilaren 20ko 284/2021 Errege Dekretuak, errepideko garraiorako zenbait ibilgailuren gidarien hasierako kualifikazioa eta etengabeko prestakuntza arautzen dituenak, 17. artikuluan ezartzen du hasierako kualifikaziorako azterketak gutxienez urtean sei aldiz deitu beharko direla eta deialdi hori, gutxienez, lehen ariketa egin baino hilabete lehenago argitaratu behar dela. Hori dela eta, 2025. urtean egingo diren proben egutegia finkatu behar da.

Horren ondorioz, agiri hau sinatzen duenak ondoren azaltzen den proposamena egiten dizu, batetik, kontuan harturik zer aurreikusten duen Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua, Ahaldu Nagusiaren uztailaren 6ko 169/2023 Foru Dekretua aplikaturik, eta bestetik, aintzat harturik zer xedatzen duen Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren Egitura Organikoa onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 18ko 84/2024 Foru Dekretuaren 4.f) artikulua.

FORU AGINDUA

Lehenengoa. — Azterketa-deialdiak

Hasierako kualifikazioa egiaztatzen duen lanbide-gaitasunaren ziurtagiria lortzeko probak egiteko 2025. urteko deialdiak onartzea. Ziurtagiri hori beharrezkoa da Gidarien Araudi Orokorrean zehaztutako C1, C1+E, C, C+E, D1, D1+E, D edo D+E kategorietako gidabaimenak izatea eskatzen duten ibilgailuak bide publikoetan gidatzeko. Hona hemen proben egutegia:

- Lehenengo deialdia: 2025eko urtarrilaren 10ean.
 - Bigarren deialdia: 2025eko otsailaren 28an.
 - Hirugarren deialdia: 2025eko maiatzaren 5ean.
 - Laugarren deialdia: 2025eko ekainaren 13an.
 - Bosgarren deialdia: 2025eko irailaren 19an.
 - Seigarren deialdia: 2025eko azaroaren 14an.
- Eskaera-orriak aurkezteko epea:
- Urtarrila: 2024ko azaroaren 25etik abenduaren 16era.
 - Otsaila: 2025eko urtarrilaren 20tik otsailaren 7ra.
 - Maiatza: 2025eko martxoaren 20tik apirilaren 9ra.
 - Ekaina: 2025eko maiatzaren 6etik maiatzaren 26era.
 - Iraila: 2025eko abuztuaren 8tik irailaren 1era.
 - Azaroa: 2025eko urriaren 7tik urriaren 27ra.

Bigarrena. — Azterketetara aurkezteko eskubidea

Hasierako kualifikazioa lortu nahi duten izangaiek eskaera aurkeztu eta dagokion tasa ordaindu beharko dute deialdi bakoitzean horretarako ezarritako epearen barruan.



Azterketan ez da onartuko prestakuntza-ikastaroa eskaerak aurkezteko ezarritako epearen azken eguna baino beranduago amaitzen duen izangairik, ezta tasa epe horretatik kanpo ordaintzen duenik ere, deialdi bakoitzari dagokionez.

Hirugarrena. — Argitaratzea

Foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Foru-agindu hau behin betikoa da, eta administrazio-bidea amaitzen du. Interesdunek foru-agindu horren aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute EAEko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, foru agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera, edo, bestela, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 124. artikuluan ezartzen denarekin bat.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ezingo da jarri berariazko ebazpena eman arte edo jarritako berraztertze-errekurtsoaren usteko ezespena gertatu arte.

Dena den, foru-diputatu andreak ebatziko du.

Aurreko proposamena onartu da eta, horren ondorioz, bertan proposatutakoaren arabera ebatzi da.

Se acepta la anterior propuesta y, en consecuencia, se resuelve de conformidad con lo que en la misma se propone.

Bilbon, 2024ko urriaren 18an.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa
Sustatzeko foru diputatua,
SONIA PÉREZ EZQUERRA